



# LEZON

09'

URRIA 2019 OCTUBRE

Ijurkoko  
igogailuaren  
proiektua prest

*Ya se ha redactado  
el proyecto del  
ascensor de Ijurko*





**Lezoaren  
ongizatea  
gure helburu**

Ezingo nuke gutun hau eskerrak ematen baino hasi. Eskerrak beste behin gugan konfianza jarri eta 4 urtez gehiago Lezo zein lezoarren alde jarduteko aukera eskaizteagatik.

Orain arte bezala, Lezoaren ongizatea bermatzea eta bizi kalitatea hobetzea da gure helburu, ardatz eta jomuga eta uneoro hori betetzeko lan egingo dugu, konpromiso osoz, Lezok aurrera egiten eta hobetzen jarraitu behar duelako. Gure eguneroko lana, beraz, herritarrok eta beren beharrak kontutan hartuta betetzea da gure helburua.

Horretarako, eta Lezok hobetzen eta aurrera egiten jarrai dezan, hainbat proiektu ditugu eskuartearen, besteak beste merkataritzari buruzko azterketa, Formazio eta Laneratze Zentro berriaren sorrera, Iturri industrial agunearen berritzea, gizarte zerbitzuen maparen garapena, alokairuaren eta babestutako etxebizitzen sustapena, Arraitokin eraikin zein erabilera anitzeko espazio berriaren eraikuntza, irisgarritasunaren hobekuntza, kirol espacio eta gune berrien sorrera, kultur sormenaren indartzea lehiaketa eta Arte Eskola berriaren bitartez eta Altamira auzoaren berritzea.

Horiek guztiak aurrera eramateko lan talde ezin hobeak dut alboan eta guztiok Lezo hobetzeko xedez jarraituko dugu lanean. Gobernu honek konpromiso sendoa du pertsonekin eta euren ongizatearekin, hori bermatzea gure helburua izateaz gain, gure erantzukizuna delako; pertsonak eta kasu honetan lezoarrak direlako eta izango direlako, beti, garrantzitsuena.

## Herri Eskolako estaldurak bi urte egin ditu

La cubierta de la Herri Eskola ya ha cumplido 2 años



2017ko urrian inauguratu zuen Udalak Herri Eskolako estaldura, eskolak urtetan egindako eskariei behin betiko erantzuna emanet. Estalduraren bitartez, Udalaren helburua izan da herriarrei aislaldi aukera berriak eskaiztea eta bereziki, herriarren eta haurren bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea.

### GARANTIZAR EL BIENESTAR DE LAS PERSONAS

*Mejorar la calidad de vida de las y los lezoarras y garantizar su bienestar es una de las principales líneas de trabajo del Ayuntamiento.*



- Promoción de viviendas protegidas y alquiler para jóvenes
- Mejora de la carta de servicios sociales (unido al envejecimiento activo y saludable)
- Nuevo centro de formación e inserción y la regeneración del polígono Iturri
- Construcción de un nuevo ambulatorio
- Nuevas campañas de igualdad y convivencia

### LEZO BIZIA

*Lezo bizi handiko herria da eta hain zuzen hori babestu eta indartzen jarraitzeko, kulturaren eta kirolaren aldeko apustu irmoa berretsi du gobernuak, merkataritzari, ostalaritzari eta noski, euskararen erabilerari lotuta.*

- Merkataritzari buruzko azterketa egitea sektorea indartzeko
- Erabilera anitzeko espazioa eraikitzea Arraitokin
- Kultur sormena bultzatzea: Tomas Garbizu música lehiaketa, Elias Salaberria arte lehiaketa eta Arte Eskola
- Kirol espacio berriak sortzea: skate park, ur jolasak, kantxak...
- Euskararen erabilera areagotzeko ekimenak sustatzea eskualde mailan



### UN MUNICIPIO MÁS AMABLE Y ACCESIBLE



- Construcción de un nuevo ascensor en Ijurko
- Construcción de un espacio multiusos en Arraitoki
- Regeneración y mejora del barrio y el parque de Altamira

*Para seguir construyendo el futuro de Lezo es imprescindible atender a la accesibilidad, la movilidad, la seguridad o la limpieza de nuestras calles, ya que todo ello repercute directamente en el bienestar y la calidad de vida de la ciudadanía.*

### GOBERNU ONA

*Udal jarduna gobernu onean, gobernu onaren balioetan eta kudeaketa zorrotzean oinarrituko da, gertutasuna, elkarlana, gardentasuna eta eraginkortasuna printzipio hartuta.*

- Herritarren parte hartzea sustatzeko ekimenak
- Pardaidetza digitala sustatzeko aukerak aztertu
- Zerbitzu telematikoak areagotu



## LEZO IRISGARRIAGOA ETA ATSEGINAGOA ERAKITZEN



Lezoko Udalak hainbat hobekuntza lan egin ditu udan zehar herriko espaloietan, egoera txarrean edo kaltetuta zegoen galtzada-harria konponduz. Besteak beste Lopene eta inguruko kaleetako edota Zubitxo kaleko espaloia hobetu eta egokitutu ditzakete, horiek oinezkoentzat espazio atseginagoak izan daitezen eta, aldi berean, herriko zein herritarren irisgarritasuna hobetu eta bermatzeko. Lan horiek burutzeko, gainera, Enplegu Planaz baliatu zen Udala eta Lanbideen izena emandako pertsona langabetuak kontratatu zituen.

Hobekuntza lanek, beraz, helburu bikoitza bete dute, irisgarritasuna hobetu eta bermatzea batek eta enplegu sustatu eta lan aukera berriak sortzea eta eskaintza, bestetik.

## AMPLIANDO Y FORTALECIENDO LA RED INDUSTRIAL DE LEZO



Lezo cuenta con una importante red industrial, razón y objetivo por el cual el gobierno local ha realizado recientemente la primera fase de las mejoras previstas en el polígono Iturrin con el fin de promover la actividad económica en el municipio y atraer nuevas empresas.

Entre los trabajos realizados destaca la renovación de la iluminación del espacio, la instalación de una nueva red de canalización de aguas pluviales y la peatonalización de la entrada. Además de ello, también se han instalado las infraestructuras necesarias para que, en un futuro se pueda instalar la fibra óptica en Iturrin, todo ello, con el objetivo hacer más atractivo y adecuado el espacio para atraer a nuevas empresas y promover así la actividad económica local y crear nuevos puestos de trabajo.

## OINEZKOAK LEHENTASUN ETA ARDATZ ELIAS SALABERRIA KALEAN



Elias Salaberriko irisgarritasun arazoan jakitun izanik, ekaínean eraberritze lanak egin zituen bertan Udalak, horien artean: zoru guztia berritu, espaloia zabaldutu, bertako eserlekuak berritu, zuhaitz berriak landatu, segurtasuna bermatzeko erreka ondoko horma altxatu, aurreko argiztapenari LED teknologiadun sare berria gehitu eta euri-uren sistema eta saneamenduarena ere berritu. Horrez gain, espaloiaaren beste aldean dagoen espazioa ere berrantolatu du Udalak, bertako lurra hobetuz eta aparkalekuak margotuz.

Lanen helburua, halaber, eremua oinezkoentzat atseginagoa egitea izan da, horretarako kalea espazio eta argitasun handiko eremua bilakatuz.

## GABONETAKO ARGIEK LEZOKO KALEAK GIROTUKO DITUZTE BESTE BEHIN

Urte amaierako jai egunak urrutti daudela badirudi ere, dagoeneko bi hilabete baino gutxiago gelditzen da Gabonetako argiek gure herriko kaleak girotzen has daitezen, aurten ere, kale argiztapena nagusi izango baita Lezon.



Lezoko Udalak 2016an berreskuratu zuen Gabonetako kale argiztapena helburu bikoitzarekin: herriko eta kaleetako giroa alaitza batetik eta tokiko merkataritza babestu eta sustatzea, bestetik. Izan ere, bertako saltokientzat garai berezia izaten da eta apaingarrien bitarbez, kaleak girotzeaz gain, Eguberrieta erosketak tokiko denda eta saltokietan egitea sustatu nahi du Udalak. Lezoko saltoki eta saltzaileek bizia ematen diete gure kaleei, ez Eguberrieta soilik, baita urteko gainerako egun guztieta ere. Izan ere, zer izango litzateke gure herriaz inolako denda edota saltokirik gabe?

## RENOVACIÓN DE LAS TARJETAS DE ESTACIONAMIENTO DE ALTAMIRA

El próximo 30 de octubre será el último día para realizar la solicitud de renovación de la tarjeta de estacionamiento para la calle Tomás Garbizu del barrio Altamira. Y es que a final de año, concretamente el 31 de diciembre caduca la validez de la actual tarjeta y la nueva tendrá una duración de 3 años.

La tarjeta se puede solicitar presencialmente en la Oficina de Información (8:30h- 13:30h) o telemáticamente a través de la web [www.lezo.eus](http://www.lezo.eus). En ambos casos será imprescindible cumplir con los requisitos establecidos y abonar el pago previo de la tasa correspondiente de 10€.

Para más información: 943 52 40 03.

## ITSASPEKO ZINEAREN NAZIOARTEKO ZIKLOA AURTEN LEZON

Hilaren 19an eta 26an Itsaspeko zinemaren Nazioarteko Zikloa ospatuko da Lezon. Horren baitan, helduei zuzenduriko bi zinema emanaldi eskainiko dira arratsaldeko 19:00etan Gezala Auditoriumean. Saio bakoitzean itsaspeko bizia

jasotzen duten laburmetraia ugari eskainiko dira, nazioarteko herrialde ezberdinak: Italia, Argentina, Kanada, Francia, Bélgica...

Nagusien saioez haratago, herriko ikastetxeen zuzenduriko bi saio itxi ere egingo dira, urriaren 18an lehena eta 25ean bigarrena.



## CONGELADAS LA MAYORÍA DE TASAS E IMPUESTOS PARA EL 2020

En el pleno celebrado en septiembre quedó aprobada la propuesta del equipo de gobierno de congelar la mayoría de impuestos y tasas de cara al 2020. El objetivo es intentar minimizar la presión fiscal que padecen las y los ciudadanos, manteniendo en cualquier caso el equilibrio entre gastos e ingresos. No obstante, hay diversas variaciones y se han creado nuevas tasas con el fin de dar respuesta a las nuevas necesidades de Lezo y las y los lezoarras.

Las variaciones son las siguientes: subida del 1.5% en el impuesto sobre vehículos (entre 1€ y 3€ al año aproximadamente), subida del 0.25% en el ICIO para obras menores que no necesitan trámites ni permisos (pintura...) y creación de unos costes base de reformas parciales y totales, subida en las tasas del camposanto y subida del precio de las duchas del polideportivo para personas no socias.

Las nuevas tasas son la tasa para el uso de grúas o para la recogida de residuos para almacenes y talleres fuera de zonas industriales. En el polideportivo también se han creado tasas para la renovación de la pulsera o la llave de la taquilla, para el alquiler de palas, raquetas, palas de ping-pong, material de escalada o alquiler mensual de una taquilla. Asimismo, también se ha creado una tasa para el centro de día, mediante la cual las personas usuarias deberán abonar entre 1€ y 3€ en base a sus ingresos anuales.

## LEZOARREN BIZI KALITATEA HOBETUKO DITUZTEN BI PROIEKTU GAUZATZEKO BIDEAN

### Lezoarrentzat etxebizitzaz aukera berriak



Udalaren nahia eta helburua da lezoarrei etxebizitza aukera berriak eskaintza, herritarrek beren bizimodu herrian bertan eraikitzen jarraitu ahal izateko eta horretarako lehentasunezkoa da herrian etxebizitza babestua sustatzea. Ido horretan, Lezoko Udalak 2009an lankidetza hitzarmena sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin, helburu hori betetzeko. Horren baitan, Eusko Jaurlaritzak, Lezon babes ofizialeko 52 etxebizitza eta horien azpian azalera handiko lokalera eraikitzeko konpromisoa hartu zuen.

Administrazio kontuak, ordea, ez dira nahi bezain azkar joaten eta orduz gerozik urte batzuk igaro dira, baina, orain, proiekta errealitate bilakatzetik urrats bat gertuago gaudela esan daiteke, exekuzio proiekta dagoeneko prest baitago. Legealdi honetarako, beraz, Udalaren nahia da aipatu etxebizitzen proiekta egikaritza, lezoarrek etxebizitza babestu aukera berriak izan ditzaten.



Construir un municipio con futuro es el principal objetivo del Ayuntamiento y ofrecer nuevas oportunidades de vivienda, especialmente, vivienda protegida, es una prioridad para las y los lezoarras puedan seguir desarrollando su proyecto de vida en Lezo. En este sentido, el Ayuntamiento firmó, en 2009, un acuerdo de colaboración con el Gobierno Vasco, mediante el cual, este último se comprometía a la construcción de 52 viviendas y un local en Lezo.

La administración va, a menudo, más lenta de lo que quisiéramos y han pasado ya varios años desde entonces. No obstante, el Ayuntamiento confirma que dicho proyecto está ahora un paso más cerca de convertirse en realidad, puesto que, finalmente, ya se ha redactado el proyecto de ejecución y el Consistorio trabajará para que este proyecto se materialice a lo largo de esta legislatura.

## VAN TOMANDO FORMA DOS DE LOS PROYECTOS QUE MEJORARÁN LA CALIDAD DE VIDA DE LAS Y LOS LEZOARRAS

### Ascensor de Ijurko

Lezoko irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin, Udalak martxan jarritako bigarren hiri igogailuaren proiekta prest dago. Beste pauso bat eman du Udalak, beraz, Lezoarren bizi kalitatea hobetuko duen igogailu berria gauzatzeko bidean.



El proyecto del segundo ascensor urbano de Lezo ya ha sido redactado. Dicho proyecto tiene como objetivo seguir mejorando la accesibilidad en el municipio y con la redacción del mismo, se ha dado un nuevo paso para mejorar la calidad de vida de las y los lezoarras.





Legealdia hasi berri dugun

honetan, Lezoko EAJ-PNVk adostasun politikoa lortze aldera egingo du lan, ulertuta, indarrak batuta emaitza hobeak lortuko direla Lezo zein lezoarentzat.

Adostasunaren bideak lantzeak, Lezoren etorkizuna eraikitzen jarraitzeko proiektu zein ekimenak burutzen jarraitzea ahalbidetuko digu, guretzat, elkarlana eta jarrera eraikitzailea baitira horretarako funtsezko oinarriak.

Bide horretan, EAJ-PNVk Lezo eta lezoarrak izango ditu uneoro oinarri, lehentasun eta ardatz, herritarren bizi kalitatea eta ongizatea hobetu eta bermatzen jarraitzeko. Eta horri helduta egingo dugu lan, orain arte bezala, datozen 4 urteetan ere.

*En esta recién estrenada legislatura, EAJ-PNV de Lezo ratifica su apuesta por trabajar las vías del acuerdo y la colaboración en el Ayuntamiento, entendiendo que así se obtendrán mejores resultados para Lezo y las y los lezoarras.*

*Trabajar las vías del acuerdo y la colaboración, facilitará el poder seguir desarrollando proyectos para la construcción de un municipio con futuro, ya que mantener una actitud constructiva y colaboradora es indispensable para lograr dicho objetivo y en todo ello, Lezo y las y los lezoarras son y seguirán siendo siempre la prioridad de EAJ-PNV de Lezo.*



2000. urtetik jasotako

euskararen kale erabilera daturik baxuenak jaso dira aurten eta azken lau urteotan ia lau puntu jaitsi da kale erabilera.

Hizkuntza baten egoeraren adierazle nabarmenena eta fidagarriena erabilera dela kontuan izanik, euskararen egoerak okerrera egin du gure herrian.

Ohartzen gara hizkuntzaren erabilera Lezotik harago ere jokatzen dela. Zentzu horretan, hizkuntza normalizazio prozesuaren pisu nagusia norbanakoentzako bizkar jartzen duen gaur egungo hizkuntza-politika gainditzeko urrets esanguratsuak egin beharra aldarrikatzen dugu.

Horrekin batera, ordea, Lezotik eta lezoarrok ahal dugun neurrian egoera horren aurrean euskararen normalizazioaren aldeko urretsak egiteko beharra adierazten dugu. Horretarako, herritar bakoitzak egin dezakeenaz harago, udalak eredu izan behar du, goitik behera euskaraz funtzionatzu.

Denbora da neurri zehatzak hartzeko garaia iritsi zena. Azken urteetako lasaikeria alboratu eta udal ordezkariei dei egiten diegu urte luzez elkartu gabe egon den Euskara Batzordea berrosatzeko; batetik, egoeraren inguruko irakurketa egiteko; eta bestetik, euskararen normalizazioaren aldeko ekinbide zehatzak eta formula berriak proposatzeko. Geure aldetik batzordean parte hartzea eta lanketa propioa egiteko konpromisoa hartzen dugu.



En esta Legislatura, una vez resuelto

con éxito el problema de los residuos, uno de los objetivos principales del Equipo de Gobierno, en el que el PSE-EE será responsable de la concejalía de medioambiente y transición ecológica,

es avanzar en la mejora de la calidad ambiental y favorecer el tránsito de Lezo hacia un municipio más ecológico lo cual redundará en el bienestar de los vecinos. Elaborar una estrategia municipal para mitigar el cambio climático, promover la movilidad sostenible y la recuperación de espacios degradados, a la vez que ampliamos y mejoramos las zonas verdes urbanas y periurbanas, apoyar al sector primario y al comercio de proximidad, impulsar la economía circular y la compra pública verde serán áreas de trabajo en las que incidiremos y seremos más ambiciosos que en la actualidad, al mismo tiempo que continuaremos llevando a cabo actuaciones de ahorro energético en edificios y alumbrado público. Es el momento de pasar a la acción, y para ello dedicaremos recursos técnicos y económicos para alcanzar estos objetivos ya que es una de las demandas principales de los lezoarras en general y de los más jóvenes en particular. Por último, a través de campañas de comunicación acercaremos el Medioambiente a los vecinos, favoreciendo su conocimiento y disfrute modificando progresivamente sus hábitos de conducta para conseguir un mayor respeto y uso racional del patrimonio y recursos naturales de Lezo.



Gezala aretoa 2003an zabaldu zen lehen aldiz herriko kultur jarduerak – música, antzerkia, danza... – bertan eskaintzeko helburuz. Urtetan ordea, herriko kultur jarduerak ia geldirik egon ziren, horrenbestez, aretoak ez zuen nahi bezain beste arrakasta izan eta kultur ekitaldiek ez zuten nahi adina herritar erakarri bertara. Gauzak horrela, krisialdi garaian, Gezalak bertan behera utzi behar izan zuen bere jarduera eta horrenbestez, urtetan zehar, aretoa, herriko antzerki taldeen bilgunea edota Musika Eskola eta Lesoinuren ekitaldien egoitza izan da. 2015ean ordea, udal gobernu berriak, kulturaren aldeko apustu irmoa egunik, kultur jarduerak indartu eta kultur programa iraunkorra eskaintzeko bideari heldu zion, kulturari lotuta, Lezok bere identitatea eraikitzen jarrai zezan. Horretarako, udal gobernuak Gezala biziberritzeari erreparatu zion eta lehenbizi aldagela berriak eraiki

zituen bertan, ordurarte ez baitzegoen horrelakorik bertan eta ondorioz, antzezten eta lanean aritzen ziren taldeek ez zuten gauzak utzi edo arropaz aldatzeko tokirik. Behin aldagela berriak eraikita, nabarmen hobetu dira taldeen lan baldintzak. Lan horiez haratago, udal gobernuak beste hainbat hobekuntza ere egin zituen Gezalan, esate baterako argiterian, bertako lan baldintzak eta emanaldien kalitatea hobetzeko. Horiei guztiei esker, gaur egun, lezoarrek instalazio paregabeak dituzte kultur ekitaldi eta jarduerez herrian bertan gozatu ahal izateko, ondoko herrialdeetara joan behar izan gabe. Gezalaren biziberritzea amaitutzat emateko, baina, Udalak aretoko fatxada eta sarrera margotu ditu eta bertan, herriko artista edota pertsonaia esanguratsuak margotu ditu, Lezo eta Lezoko kulturaren ikur gisa. Ikusi emaitza...



**Nortzuk dira  
margotu dituzten  
pertsonaiak?  
¿Quieres saber  
quienes son?**



## Elias Salaberria, margolaria pintor



Elias Salaberria Lezon jaio zen 1883 urtean. Margolari eta erretratugilea aintzatetsia, bere estilo errealistagatik da bereziki ezaguna. Lezok leku berezia izan zuen artistaren bihotzean, baita ibilbidean ere eta orain berak hartu du leku berezia Lezon.

Elias Salaberria nació en Lezo en el año 1883 y fue un reconocido pintor y retratista cuyas obras destacan por su estilo realista. Lezo ocupó un gran lugar en el corazón y en la carrera artística de Elias y ahora, él mismo ocupa un lugar significativo en nuestro municipio.

## Patri Urkizu, idazlea escritor

Patri Urkizu, Lezon 1946an jaioa, Francoren diktaduraren ondorengo Lezoko lehen alkatea izan zen. Salamancako Unibertsitatean Filología Erromanikoan lizetziatua, eta EHUn Euskal Filologian doktorea, idazle aintzatetsia eta saritua da. Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria izan zen eta egun UNEDen euskara eta literatura irakaslea da, baita Euskaltzaindiako kidea ere.

Nació en Lezo en 1946 y fue el primer alcalde del municipio en la época post-franquista. Licenciado en Filología Románica en la Universidad de Salamanca y doctor en Filología Vasca en la UPV, Urkizu es un reconocido escritor, ganador de varios premios. Fue presidente de la Asociación de Escritores Vascos y actualmente ejerce profesor de euskera y literatura en la UNED y miembro de Euskaltzandia.



## Polentzi Gezala, txistularia



Polentzi Gezala lezoarra 1919an jaio zen eta ofiziora jostuna izan baren ere, txistua izan zuen bizitzan bidelagun. 18 disko argitaratu zituen, horietatik 7 berak bakarka eta Europaren zehar hainbat eta hainbat kontzertu eskaini zituen, euskal musika eta kultura Europaren barreiatuz.

Polentzi nació en Lezo en noviembre de 1919 y a pesar de que fue costurero de oficio, el txistu le acompañó a lo largo de toda su vida. Publicó 18 discos, 7 de ellos en solitario y ofreció numerosos conciertos por toda Europa, haciendo llegar el txistu y la música popular vasca a distintos puntos de la geografía europea.



## Koldobike Gezala, raketista

Koldobike Gezala, emakume raketista, "Kollo" ezizenez ezaguna, Lezon jaio zen 1918an. Estatu mailako emakume kirolari profesional aintzindari haietakoia izan zen. Modalitate hori 1917an sortu zen, gizonezkoek kirol esparrua erabat kontrolatzen zuten momentuan, baina emakume raketistek, tartean Kollok, 30. hamarkadan munduan barrena jokatzea lortu zuten. Egun, Lezoko frontoiak bere izena darama.

Koldobike Gezala, más conocida como Kollo, nació en Lezo en 1918 y fue una mujer raquetista, es decir, una de las primeras mujeres deportistas profesionales a nivel estatal. Esta modalidad se creó en 1917, época en la que los hombres controlaban por completo el ámbito deportivo, pero las mujeres raquetistas, entre ellas, Kollo, lograron jugar por todo el mundo a lo largo de la década de los 30. A día de hoy uno de los frontones de Lezo lleva su nombre.

## Korri, Xalto ta Brinko, pailazoak payasos

Korri Xalto eta Brinko pailazo hirukote lezoarra, 1999az geroztik dabil, batez ere euskaraz, haurrei barrea eragiten. Pailazoek helburu dute Lezoko pertsonaiak eta historia ezagutzen ematea eta, bide horretan, Euskal Herrian zehar hainbat ikuskizun egin dituzte.

Este trío de payasos lezoarras lleva desde 1999 haciendo reír a las y los niños, siendo el euskera, el idioma principal para ello. Su objetivo es dar a conocer los personajes y las historias de Lezo y con ese fin han realizado espectáculos por distintos puntos de Euskal Herria.



## Trapujale, Lezoko pertsonaia personaje de Lezo

1990az geroztik, Trapujale Lezoko inauterietako protagonista da. Erdi betizu, erdi zaldi den pertsonaia honek ematen die ongietoria urtero Lezoko inauteriei. Bere izena Lezoaren aspaldiko ezizenetik dator. Diotenez, gosete garaian, lezoarrek hainbesteko gosea zuten trapuak ere jaten zituztela eta hortik dator trapujale eziena.

Desde 1990 Trapujale es el protagonista de los carnavales de Lezo. Mitad vaca salvaje, mitad caballo, es quien todos los años da la bienvenida a dichas fiestas. No obstante, su nombre proviene de un antiguo apodo, y es que cuenta la leyenda que en los años de hambruna, tal era el hambre que pasaban las y los lezoarras que, por lo visto, comían incluso trapos, de ahí el nombre de este personaje (trapujale = comedor de trapos).

## Zabarre pirata, Lezoko pertsonaia personaje de Lezo

Kondairak dioenez, garai batean Lezoko arrantzaleek, ogia arrantzatik lortzen ez zutenean, beste itsasontziak harrapatzen zituzten, benetako pirata bilakatuta. Zabarre etxearen bizi ziren Juanot Zabala eta Joxe bere semea omen ziren pirata horietako batzuk. Hortik dator Pentekosteetako zaindari den Lezoko Zabarre pirataren izena.

Cuenta la leyenda que en Lezo hubo un tiempo en el que los pescadores que no lograban obtener sustento del mar, lo hacían asaltando otros barcos, convirtiéndose así en auténticos piratas. Acorde a dicha historia, Juanot Zabala y su hijo Joxe, fueron dos de los piratas de lezo cuyo domicilio llevaba el nombre de Zabarre, de ahí que hoy en día, Lezo conserve un pirata que lleva el mismo nombre y que es el patrón de las fiestas de Pentecostés.



# AGENDA *Kulturala*

URRIA - AZAROA - ABENDUA

## MUSIKA ZINEMA ANTZERKIA IPUIN KONTAKETA LITERATUR SOLASALDIA HAUR JARDUERA HAUR ZINEMA ZINEMA FAMILIAN

### URRIAK 19

12:30 Aiton Bordatik

**KANTUJIRA**

### URRIAK 19-26

19:00 Gezala Auditoriuma

NAZIOARTEKO  
ITSASPEKO ZINEMA

### URRIAK 20

20:00 Gezala Auditoriuma



**LA LISTA DE MIS DESEOS**

### URRIAK 23

18:15 Udal liburutegia

**IRUDIPUINAK**

### URRIAK 30

18:30 Udal liburutegia

WATTERLOO-N  
GALDUTAKOAK

### AZAROAK 6

18:15 Udal liburutegia

**IPUINAK MARA-MARA**

### AZAROAK 8

17:30 Gezala Auditoriuma

**HUBO**

### AZAROAK 9

17:00 Gezala Auditoriuma



**HORMAN ERLOJUA  
DUEN ETXEA**

19:00 Gezala Auditoriuma

**MARGOLARIA**

### AZAROAK 10

20:00 Gezala Auditoriuma

**RUPER ORDORIKA**

### AZAROAK 13

18:15 Udal liburutegia

**NORK DAKI, EZ DAKI**

### AZAROAK 15

17:30 Gezala Auditoriuma

**LOOPS**

### AZAROAK 16

12:30 Aiton Bordatik

**KANTUJIRA**

### AZAROAK 17

20:00 Gezala Auditoriuma

**QUITAMIEDOS**

### AZAROAK 19

18:30 Udal liburutegia

**EL LIBRO DE LA  
SEÑORITA BUNCLE**

### AZAROAK 20

18:15 Udal liburutegia

**IPUINETIK IPUINERA**

### AZAROAK 23-24

20:00 Gezala Auditoriuma

**BERNARDA ALBAREN  
BOST ALABAK**

### AZAROAK 27

18:15 Udal liburutegia

**ISILKA MISILKA,  
ISILATASUNAREN  
ZAINDARIA**

### ABENDUAK 1

20:00 Gezala Auditoriuma



**ELE! LORCA-LAUAXETA**

### ABENDUAK 7

17:00 Gezala Auditoriuma

**OIN HANDIREN SEMEA**

19:00 Gezala Auditoriuma

**SOINUJOLEAREN SEMEA**

### ABENDUAK 11

18:30 Udal liburutegia

**PEREIRAK DIOENEZ**

### ABENDUAK 13

17:30 Gezala Auditoriuma

**ETXE TXIKIENA**

### ABENDUAK 15

20:00 Gezala Auditoriuma

**DRÁCULA**


### ABENDUAK 21

12:30 Aiton Bordatik

**KANTUJIRA**

### ABENDUAK 28

17:30 Gezala Auditoriuma



**MAYA ERELEA, EZTI  
JOKOAK**

### TOMAS GARBIZU MUSIKA ESKOLAKO JARDUERAK

#### AZAROA

**15 AKORDEOI AUDIZIOA**

**16 STA. ZEZILIA KONTZERTUA**

**17 STA ZEZILIA KALEJIRA**

#### ABENDUA

**3: EUSKARAREN EGUNA**

**14/20/23 GABONETAKO KONTZERTUAK**

**18/19 GABONETAKO AUDIZIOAK**

**24 HATOR-HATOR KANTATZERA + GABONETAKO KALEJIRA**

**31 URTE AMAIERAKO KOPLA ZAHARRAK**



@LezokoUdala



@LezoUdala

DESCARGATU LEZO ESKURA JARRIKO  
DIZUN APP-A

DESCARGA LA APP PARA CONOCER  
TODA LA PROGRAMACIÓN

